

Euskal pentsio sistema baterantz

UEU 2015-07-16

GS sistemen funtzioa

- Prestazioak espeziean
- Prestazio ekonomikoak:
 - aldi baterakoak (aldi baterako ezintasuna, langabezia, aitatasuna-amatasuna)...eta mugagabeak
 - Mugagabeak: jubilazio pentsioak, ezintasun iraunkorra, alarguntasuna-zurztasuna, familiakoen aldekoak
 - Zenbatekoak: soldatarekiko proportzionalak edo finkoak (esate baterako, ezintasun iraunkorra partziala)

Pentsio sistema motak

- Banaketakoak: kotizazioak prestazio gisa banatzen dira, aldez aurretik pilatu gabe. Bere oinarria gizarte konpromezua da, alegia, aktiboek pasiboen pentsioak finantzatzen dituzte eta, jubilatzekeo adinera heltzen direnean, aktiboek gauza bera egingo dute. Normalean publikoak dira. Ba dago sabuespen esanguratsu bat: AGIRC-ARRCO, Estatu Frantziarran, nahiz eta profesionala izaten, hots, pribatuak, banaketaren metodoan oinarritzen dira
- Kapitalizaziokoak: egindako ekarpenak funtsetan sartzen dira, kontu indibidualetan inbertitu egiten dira, eta pilatutako dirua prestazioetan banatzen da. Gehienetan pribatuak dira, bai profesionalak bai norbanakoak

Kotizazioak-prestazioak harremana

- Prestazio zehatzak: enplegatzaileak pentsio zehatzak ematera konprometitzen dira (lan egindako denboraren eta soldata-kotizazioen arabera). Bere betebeharra emaitzakoa da. Pentsio pribatuetan, emaitza horiek lortzeko behar dena kotizatu beharko dute, birraseguru entitateen bitartez: adib. *Pension Benefit Guarantee Corporation* (PBGC) EE.BBetan, porrotean dauden enpresek zor dituzten pentsio publikoak muga bateraino bere gain hartzen dituenak
- Kotizazio zehatzak: enplegatzaileak kotizazio zehatzak ordaintzera konprometitzen dira. Prestazioak inbertsioen errendimenduaren arabera izango dira. Bere betebeharra ekarpenekoa da

Pentsio sistema espainiar

Estatuan

- Publikoa: Banaketa sistema prestazio guztientzat, honako kasua ezik, kapitalizio modu ibiltzen dela: Mutua edo enpresa erantzuleen kargura dauden ezintasun iraunkorra edo heriotza, lan-istripu edo gaixotasun profesionalagatik.
- Prestazio zehatzen metodoan oinarritua.
- Pentsio publikoen gastu: BPGren 11,8% 2013ean.
- Pentsio pribatuen funtsen ondarea, 2013. urtean, BPGren % 9,0koa zen, espainiar Estatuaren antzeko pentsio sistemak dituzten herrialdeak baino gehiago: Alemania (%6,2), Italia (%6,1%) eta Frantzia (%0,4). Herrialde horiek gehiago gastatzen dute gaur egun banaketako pentsio publikoetan, eta, Italia eta Frantziaren kasuan, gehiago gastatzen jarraituko dute, 2060rako Europako Batzordearen aurreikuspenen arabera (hurrenez hurren, %14,4 eta 15,1).

27/2011 Legearen erreforma eta 2011-2013ko osagarriak

- 27/2011 Legea: jubilatzeko adinaren igoera, kalkulatzeko epearen eta kotizaturiko urteen luzapena pentsioaren %100 lortu ahal izateko.
- Beste arau batzuk: 20/2012 Legea, aurrejubilazioko subsidiorako adina 52 urtetik 55 urtera igotzen duena.
- 5/2013 EDLegea, bizitza laboralaren jarraipena sustatzeko, aurreratutako jubilazioak okerragotzen dituena eta aurrejubilazioko subsidioa lortzeko baldintzak estutzen dituena: el requisito del límite de ingresos pasa a ser de la unidad de convivencia, lo que impide acceder a la mayoría de las personas vascas, por su mayor sueldo y/o pensión.

Azken erreformaren osagaiak

- 23/2013 legea, “Gizarte Segurantzaren pentsio sistemaren birbalorazio adierazlea eta jasangarritasun faktorea” erregulatzen dituena, arrazoi demografikoen (bataz besteko bizitza itxaropena igotzea) eta ekonomikoen arabera (langabezi tasa altuak eta hazkunde ekonomikoaren moteltzea), hasierako pentsioak eta pentsioen birbalorizazioa gutxitzen ditu.
- Banaketa sisteman kapitalizazioaren irizpideak sartzen ditu

Jasangarritasun faktoreak (JF) pentsiodunei jubilatutako ondorengo bataz besteko bizitza itxaropenaren luzatzea ordainarazten die. JF 67 urtetan bataz besteko bizitza itxaropenaren bilakaeraren arabera kalkulatu da, 5 urterako eta **2019 urtetik aurrera jubilazioko hasierako pentsioei aplikatuko zaie.**

Behin bakarrik aplikatzen zaie jubilatutako berriei, beren lehen pentsioa kalkulatzekoan, bizitzeko itxaropena gora doala kontuan hartuz, eta aurreko jubilatuek baino gehiago jaso ez dezaten hasierako pentsio aldatzen da (gutxitu) kalkulaturiko bizitzeko itxaropen teorikoarekin.

Estatuko Estadistika Erakundeak (INE) bizitzeko itxaropenari buruz dituen aurreikuspenak mantenduko balira, Jfren aplikazioak pentsioak gutxitzea eragingo luke (2049an %9 eta 18ren artean).

Bakarrik bizitzeko itxaropenak atzera egingo balu ekidingo litzateke pentsioen gutxitzea (ez da ezinezkoa, adib. 2012, gizarte krisiagatik).

INEren informazioak batz besteko bizitzeko itxaropenean ez duenez sailkapenik egiten gizarte kategoria eta kategoria profesional desberdinen artean, **bizitzeko itxaropena nabarmen txikiagoa duten langileak gehiago kaltetuko ditu**, eta, hortaz, pentsioak epe txikiagoan jasoko dituzte.

Pentsioak Birbaloratzeko Adierazlea bigarren elementua da.

Pentsioak birbaloratuko dira gutxienez %0.25 eta gehienez KPI gehi %0.50, pentsio sistemaren sarrera eta irteeren arteko harremanaren arabera, sarreraren aldaketa nominala, pentsio kopuruaren aldaketa, eta "ordezkapen efektua" deritzana, amaitzen eta hasten diren (zenbatasun haundiagoa dutenak) pentsioen arteko harremana neurtzen duena, barneratzen dituen formula baten bitartez.

Datozen urteetarako ziurtzat jo daiteke, kotizatzaile kopuruaren eta kotizazioen kopuruaren jeitsiera direla eta, soldaten jeitsieragatik, pentsioak urtero bakarrik %0.25 handituko direla, eta, **inflazioa handitzen denean, erosteko ahalmena jeitsiko da, 2016 eta 2020 urteen artean, %5,5etik gorako galera.**

Murrizketa berriak etorkizunean

- Posible da murrizketa berriak egotea, adina luzatzearen neurria azkartuz, eta jubilazioa kalkulatzeko oinarria hedatuz, bizitza laboral osora arte izan liteke.
- Murrizketen helburua, ezkutatu gabea, kapitalizazioko pentsio pribatuak garatzea da. Adituen komitearen txostenan eta Europako Batasunaren agiri desberdinetan horixe aitortzen da.

Pentsioak EAEn: datu batzuk

Daturen iturria: 2014ko Memoria, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Baztordea (CES)

EAEko jasotzaileen eta pentsioen batz besteko kopuruak

	2012	2013	2014	% 2014	% s/SMI 2014	%12- 13	%13- 14
Jasotzaileen zenbakia							
OSOA	508.200	516.600	523.900	100,0		1,7	1,4
Ezintasun iraunkorra	44.200	43.500	42.800	8,2		-1,6	-1,6
JUBILAZIOA	314.800	322.300	328.800	62,8		2,4	2,0
ALARGUNTASUNA	133.100	134.000	134.800	25,7		0,7	0,6
ZURZTSASUNA /FAMILIEN ALDEKOAK	16.100	16.800	17.500	3,3		4,3	4,2
Batez bestekoa zenbatasun (Euroak/Hilabete)							
OSOA	1.024,8	1.057,3	1.076,6	100,0	164,5	3,2	1,8
Ezintasun iraunkorra	1.134,9	1.158,7	1.171,0	108,8	179,0	2,1	1,1
JUBILAZIOA	1.171,9	1.210,7	1.235,5	114,8	188,8	3,3	2,0
ALARGUNTASUNA	710,0	730,3	739,3	68,7	113,0	2,9	1,2
ZURZTSASUNA /FAMILIEN ALDEKOAK	451,6	458,9	458,9	42,6	70,1	1,6	0,0

Biztanleak %24,6 pensionistak dira

Diruzaintza Orokorrak (TG) bildutako kuoten bilakaera (milioi eurotan)

		Euroko milloiak					% aldakuntza		
		2010	2011	2012	2013	e	2010-11	2011-12	2012-13
Orokorra		4.658	4.701	4.645	4.690	72,7	0,9	-1,2	1,0
AutOnomoak		619	661	676	681	10,6	6,8	2,3	0,7
Nekazal*		3	3	0	0	0,0	0,0	0,0	-
itsasoa		28	28	26	27	0,4	0,0	-7,1	3,8
Etxe barrukoak*		28	30	12	0	0,0	7,1	-60,0	-100,0
ikatzen meatzaritza		0	0	0	0	0,0	0,0	0,0	-
kuotak Lanen	istripua/GP	6	6	7	7	0,1	0,0	16,7	0,0
(Diruzaintza)									
langabetuak SEPE		564	553	544	468	7,3	-2,0	-1,6	-14,0
Diruzaintza Orokorra		5.907	5.982	5.911	5.874	91,1	1,3	-1,2	-0,6
osotasun Kuotak				1	4	1			
Mutuak LI/GP		429	430	406	393	6,1	0,2	-5,6	-3,2
MutuaK	CONTINGENTZIA	205	199	180	182	2,8	-2,9	-9,5	1,1
ARRUNTAGATIK									
Osotasun MUTUAK		634	629	586	575	8,9	-0,8	-6,8	-1,9
BILKETA OSOA gs SISTEMA		6.541	6.611	6.501	6.449	100,0	1,1	-1,7	-0,8
dESENPLEGURAKO KUOTAK		1.128	1.131	1.088	1.056	16,4	0,3	-3,8	-3,0
bERMATZEKO FUNTSA		29	29	28	27	0,4	0,0	-3,4	-3,6
LAN HEZIKETA		122	123	120	118	1,8	0,8	-2,4	-1,7

* Erregimen hauek bilketa murrizten da 2012tik. Urte honetatik Etxe Barruko ta nekazal sistema bereziak bilketen orokorra erregimenean sartzen da.

Bilketa Estatuan jasotako kopuru osoaren %6,6koa da, eta BPGren %9.76aren baliokidea da.

%91,1% kuotetatik dator; %8,9% a GSri laguntzen dioten Mutuetatik

Gastuak pentsioetan eta sarrerak


Ekarpeneko pentsioen gastuaren bilakaera eta GSDOren sarrerak kuotengatik EAEn (milioi eurotan)

	2011	2012	2013	2014	% Var13	% Var14
Pentsioen gastua	7.043	7.342	7.700	7.952	4,9	3,3
GSDO kuotak	6.611	6.501	6.449	..	-0,8	..
Saldoa	-432	-841	1.251	..		48,8
Sarrera/Gastua	0,94	0,89	0,84	..		

Pentsioengatikoa gastua eta bilketaren arteko defizita, 2013an gastuak %4.9 igo eta sarrerak %0.8 jeitsi direlako gertatzen da. Halaber, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Baztordeak (CES), 2012 eta 2013ko defiziten handitzea adierazten duenean, ez du kontuan hartzen defizit horiek Erreserba Funtza erabiliz estali direla (18.651 milioi, horietatik, gutxi gora behera, 1.150 baino gehiago EAERI "dagozkio"). Kontutan hartuz defizit 2012 eta 2013koa oro har 942 milloiri murriztuko litzaioke.

Kotizazio* bilketaren bilakaera EAEn

EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN POR COTIZACIONES* DE LA SEGURIDAD SOCIAL EN LA CAPV



(*) Sin Desempleo, FP y FOGASA.
Fuente: Elaboración a partir de TGSS.

Euskal pentsio sistemaren betekizunak

- Gizarte Segurantzaren oinarrizko legedia eta araubide ekonomikoa: Estatuaren eskumen eskusiboa (EK-ko 149.1.17 art.)
- Gizarte laguntza: Autonomi Erkidegoen eskumen eskusiboa (EK-ko 148.1.20 art.)
- Gernikako Estatutua: “gizarte segurantzaren kudeaketa ekonomikoa”ren eskumena (18.2 art.) (gauzatu gabe). Gizarte laguntza: eskumen eksklusiboa (10.12 art.) (Prestazio bat: Diru-sarrerark Bermatzeko Errenta-DBE)
- Konstituzioa aldatzeko beharra (edo euskalduna)

Eskumenak BGAEko gaian

- AEko 10.23 art.: EAEn eskumen eskusiboak Gizarte Segurantzari barneratu gabeko Mutualitateetan, borondatezko izaera duten entitate aseguratzaileak, prestazioak aseguru pribatuen bitartez aitortzen dituztenak.
- Legearen (5/2012) helburu: “gizarte-aurreikuspen osagarria hedatu nahi du Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren artean, eta, bereziki, sistema kolektiboak eta enplegukoak sustatu nahi ditu”.
- Pentsio pribatuen pisua (BGAEak, pensio planak konturatu barik), oso altua da: bere ondarea, 2013an, BPGren % 33.65; 1.141.069 bazkide

Pentsio pribatuen sustapena

- EAEk desgrabazio fiskalen sistema zabala aplikatzen du, ez bakarrik BGAE-en alde, Pentsio Planen alde ere, bai enpleguko aldaeran, eta bai finantza entitateek kudeaturiko aldaera indibidualean.
- BGAE-en garapena EAEn, neurri handi batean, pizgarri fiskalen eraginari zor zaio, ez bakarrik PFEZen bitartez, partaideentzat, baita ere Sozietateen Zerga bitartez. Izan ere, enpresak BGAE-etara egindako ekarpenak oinarri zergagarrian kenkariak dira, eta langile bakoitzeko egindako ekarpenak kenkaria dakar kuota likidoan.
- Kudeaketa eta gordailu zerbitzuak BEZetik salbuetsiak daude, eta kapitalen eraketa, desegite, gehikuntza, murrizketa eta fusio eragiketetan oso tratu mesedegarria dute.
- 2010 urtean, desgrabazio fiskalen zenbatekoa PFEZen, kontzeptu honengatik, 1.200 milioi eurokoa izan zen, eta zergadunen %42.8ak egin zuen (EAEko Tributu Koordinazioko Organua). Ekarpenen eta desgrabazio fiskalen maiztasunak oso desberdinak dira errenta tramoen arabera.

Zahartzea EAEn

- Eustatek EAEn zahartze prozesu garrantzitsua gertatzea aurreikusten du.
- Menpekotasun tasa (<20+>65/20-64) EAEn 2008ko %48tik 2020ko ia %59raino igoko da.
- Potentzialki aktiboa den biztanleria (16-64 urte) %65etik 2020an %60ra igaroko da.
- 64 urtetik gorakoak guztien %22 izango dira (Espainiar Estatuko %18% eta Europako Batasunako %19,5aren aurrean), horietatik %7 79 urtetik gorakoak.
- Zahartze prozesua altuagoa da EAEn Espainiar Estatuan baino, non bakarrik Asturiasko Erkidego Autonomoak duen biztanleria zaharkituagoren aurreikuspena.

EAEko pentsio sistemaren finantza desorekaren arrazoiak

- Pentsio altuagoak iraganean enplegu industrialak gailendu zelako, soldata altuekin; bizi itxaropen altuagoa Estatu mailan baino; jubilazio partzialak Estatuan baino gehiago erabiltzen dira, Gizarte Segurantzaren kostua igotzen duena...

Horietako faktore batzuk aldatzen ari dira -industri sektorearen pisua jeisten ari da- eta beste batzuk ia desagertuko dira -jubilazio partzialen erabilpena-, izan ere, 27/2011 Legearekin ez da kotizatzen partzialki jubilatutakoak jasotako soldataren arabera, soldataren %100ari dagokion kopuruaren arabera baizik.

Beste finantza elementu batzuk

- 2013tik aurrera, gutxienekoen osagarriak, 2015ean 7.563 milioiko kopurukoak izatea espero direnak, osorik Estatuko ekarpenen bitartez finantzatuko dira.
- Horrek EAEn prestazio gastuen eta kotizazio sarreraren arteko saldoa hobetuko du, Espainian gutxieneko osagarriak pentsioen %27.14ak dituzten bitartean, EAEn portzentaia %13,22 arte jeisten da, eta gainera zenbatasun txikiagokoak dira
- EAEn langabezi tasa txikiagoa edukitzeak, bertan langabezia prestazioen kostua txikiagoa izatea eragiten du.
- Konparazio egokiagoa Gizarte Segurantzza orokorrean izan beharko litzateke

EAEko eta Nafarroako pentsioen defizita jasagarria al da?

- Euskal ekonomiak aurre egin diezaioke, hori bai, errentaren soldaten aldeko birbanaketa ematen bada.
- Gizarte Segurantzza eta pentsioen sistema propioarekin, politika desberdina abiarazi liteke, pentsio zenbatasun hobetzeko aukera pentsio pribatuen menpe egon gabe.
- Euskal esparruak ez du bermatzen, *per se*, pentsio sistema nabarmen hobetzea, baina badirudi euskal gizartearen gehiengoa babes hobea lortzeko egoeran dagoela

Euskal pentsio sistemaren obekuntzarako elementu batzuk

- Zertan obetu dezake gaurko egoera euskal sistemak?
- Gazteen enplegua sustatzeko jubilazio adinaren murrizketa:
 - Orokorra
 - Lan osasungaitz eta nekezengatik
 - Kotizazioaldi luzeengatik
- Kotizazioen gehienezko oinarriak eta pentsioen gehienekoak igotzea, pentsio pribatuetara joera ekiditeko. Aldi berean pizgarri fiskalak desagertze edo murriztea errazagoa izan daitezke
- Birbalorazioak soldaten edo batez besteko sarreren arabera

Nola egin aurre beharrezkoa den pentsio gastuen igoerari?

- Gastua pentsioetan ezinbestean igo beharra **ez da bakarrik zahartze demografikoagatik, denbora luzeagoan pentsio gehiago ordaindu beharra eragingo duena, baita ere egungo pentsioak igotzeko beharragatik, batez ere kopuru txikiena dutenak.** Horretarako sarrerak igo behar dira, Troikaren politikaren aurka doana, eta baita ere lehengo eta oraingo gobernuen politiken aurka, sorturiko aberastasunan pentsioen pisua jeitsi nahi baitute.
- Igoera hau aurrekontu publikoen bitartez finantza daiteke. Aukera hori oso modu desberdinetan gauzatu daiteke. Espainiako patronalak -eta euskal patronalak- pentsioei BEZaren igoeraren zati bat esleitzea planteatzen dute, eta banaketako sistema publikoaren defendatzaileen sektore batek planteatzen du zerga zuzenen (PFEZ eta Sozietateen Zerga) mailakako erreformari eta iruzur fiskalaren desagerpenari lotzea.

Egokiagoa da pentsio publikoak gizarte kotizazioen bidez finantzatzea: **enpresen karguko gizarte kotizazioak gizarteratutako zeharkako soldata dira, eta soldata-masa barruan daude.** Horregatik, kotizazioak jeistea edo ez igotzea, soldatak jeistea -edo ez igotzea- bezalakoa da. Modu horretan, azken hamarkaldietako soldaten aurkako politika mantentzen da.

Aukera hori eztabaida politikoan ez egoteak erakusten du noraino dagoen hedatuta lehiakortasunean irabazteko soldatak eustearen aldeko jarrera, batez ere planteatzen enpresen kotizazioentzat, soldata zuzenen baino gehiago.

Enpresen kotizazioak igotzeko aukera desberdinak

- 1) Kotizazio oinarriak igotzen, 2015ean hileko 3606 euroko gehienezko muga dutenak. Gehienezko oinarri honek kotizatu gabe uzten du soldata altuenen zati bat (batez ere EAE eta Nafarroan). Horrekin batera, kontzeptu batzuen kotizazio salbuespena ezabatu beharko litzateke, esaterako, enpresen ekarpenak pentsio plan pribatuetara;
- 2) Enpresen kargurako kotizazioaren tipoa igotzea. Comisiones Obrerasek proposatzen duen bi puntuko aldi baterako igoerak, langile eta enpresen artean “ekitatiboki” banatuta, soldata zuzenen murrizketa eraginko luke, beraz, zeharo alboratu beharreko proposamena da;
- 3) **Kotizazioen oinarria balio agregatuaren multzoari hedatzea.** Neurri hau 2a baino egokiagoa da, lanesku maila altuko enpresak ez kaltetzearen abantaila duelako, kapitalizatuagoak daudenekin konparatuta.

Kotizazio oinarria banatutako etekinei hedatzeak ez luke eragingo lehiakortasunean, dibidenduei ezartzen zaielako, inbertsioan eragin gabe.

Igoera hori azken hamarkadetan mozkinak soldatekik irabazi dutena baino txikiagoa izango litzateke, eta pentsioak finantza kapitalari kentzea eragin behar du, kapital horrek bereganatu nahi baititu, osasuna eta gizarte zerbitzuak bereganatu nahi dituen bezalaxe.

Pentsio sisteman aipaturiko neurriak enplegu osoko politikak lagunduta aplikatu behar dira, lan-denbora murriztuz, modu horretan kotizatzaileen oinarria hedatuz, eta baita ere errentaren eta aberastasunaren birbanaketaren aldeko politikak.

Eskerrik asko zuen arretagatik!!
